2022 • APIRILA

# aballarri

EGAPE IKASTOLAKO BULETINA

EGAPE, URNIETARRON IKASTOLA PUBLIKOA

## EGAPE IKASTOLAKO GUNE BERRIA: AMETSETATIK ERREALITATERA...
## NUEVO ESPACIO DE EGAPE IKASTOLA: DE LOS SUEÑOS A LA REALIDAD...

*Tras años de reivindicación, ya hemos empezado a ver nuevos rayos de luz y tenemos en marcha los movimientos de tierra para nuestra nueva ikastola.*

*El Plan Parcial elaborado por el Ayuntamiento de Urnieta recoge un solar de 8.000m² para la Ikastola Egape.*

*Educación, por Decreto, sólo construirá un espacio de 5.000m², donde se ubicarán el edificio de Secundaria, el gimnasio, la zona cubierta y parte del patio. El Departamento de Educación del Gobierno Vasco, siguiendo un procedimiento extraordinario, ha adelantado los trabajos y el proyecto ya ha sido consensuado. En dos o tres meses se prevé que el proyecto salga a licitación de obra, este proceso puede durar hasta finales de año.*

*Los otros 3.000m² han quedado en manos del Ayuntamiento y allí se construirá para Egape Ikastola un espacio inclusivo. En la reunión mantenida el 7 de febrero con los y las representantes municipales se ha alcanzado un acuerdo para la constitución del grupo de trabajo que elaborará el proyecto de este ámbito.*

*Se acerca el momento en el que Egape Ikastola y el pueblo de Urnieta tengan una escuela pública euskaldun, digna y con infraestructuras de calidad.*

Urte luzeetan aldarrikatzen ibili ondoren, jada, argi izpi berriak ikusten hasi gara eta gure ikastola berrirako lur mugimenduak martxan ditugu.

Urnietako Udalak egindako Plan partzialean 8.000m²ko orubea jasotzen da Egape Ikastolarako.

Hezkuntzak, Dekretuz, 5.000m² ko eremua soilik eraikiko digu, bertan Bigarren Hezkuntzako eraikina, gimnasioa, estalitako gunea eta patio zati bat, besteak beste. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak ez-ohiko prozedura jarraituz, lanak aurreratu ditu eta jada, proiektua adostua dugu. Bizpahiru hilabete barru proiektua obra lizitaziora atera eta prozesuak urte bukaera arte iraun dezakeela aurreikusten da.

Beste 3.000 m²ak Udalaren esku geratu dira eta bertan eremu inklusiboa eraikitzeko aukera dugu Egape Ikastola berria osatuz. Otsailaren 7an Udal ordezkariekin egindako bileran lan-taldea osatzeko adostasuna lortu dugu, talde eragile gisara eremu honen proiektua egingo du.

Egape Ikastolak eta Urnietako herriak gertuago du kalitatezko azpiegiturak dituen eskola publiko euskaldun eta duina.










# EUSKARAK BEHAR ZAITU!!!

Egape Ikastolaren sorreraren arrazoietako bat haurrak euskaraz hezteko aukera eskaintzea izan zen. Urteak pasa dira orduz geroztik, eta euskarak Egaperen ardatz izaten jarraitzen du.

Gure Ikastolan euskararen presentzia bermatu eta erabilera bultzatzeko ikasturtean zehar makina bat jarduera eta ekintza burutzen ditugu HHtik DBHrainoko etapetan. Batzuk, euskal eragileek eskaintzen dizkiguten programak dira, "Solas eta jolas" aisialdian euskaraz jolasteko jarduera, bertsolaritza, idazleak ikastetxean, AEKren "eusliderrak", HNP (Hizkuntz Normalkuntza Plana), "Zinema euskaraz", esaterako. Beste batzuk, aldiz, Egape Ikastolak sortutako ekimenak dira, hala nola, "Euskal kulturaz gozatu", euskal erreferente gazteak geletan, antzerkigintza, irratigintza, adin ezberdineko ikasleen topaketak…

Esan beharra daukagu azken urteetan gure Hizkuntza Proiektua eraikitzen lan handia egin dugula, eta hizkuntzen inguruko erabakiek ez dietela soilik hizkuntza-gaietako irakasleei eragin. Horregatik gure proiektuan jaso ditugu hartutako erabakiak, bereziki, hizkuntzen tratamendu integrala, irakurtzeko konpetentzia eta ahozko adierazpenarena, besteak beste.

Hala ere, euskararen erabilera urtetik urtera beherantz doala jakitun gara eta arazo honen irtenbidea ez dago soilik ikastetxearen esku. Familien eta herriko eragileen parte hartzea eta konpromezua ezinbestekoak dira euskararen erabilerak gorunzko joera har dezan.

Ikasleen arteko harremanak euskaran oinarritzea eta horren inguruan hausnarketa egin eta motibatzeko aukerak eskaintzea izango da Egaperen helburuetako bat datozen ikasturteetan ere.









# EL EUSKARA TE NECESITA!

*Una de las razones por la que se fundó Egape Ikastola fue ofrecer la posibilidad de educar a nuestros hijos e hijas en nuestra lengua. Han pasado años desde entonces, y el euskara sigue siendo nuestro objetivo principal.*

*Para garantizar la presencia y fomentar el uso del euskara en nuestra Ikastola, a lo largo del curso realizamos infinidad de actividades desde infantil hasta secundaria. Participamos en programas como el bertsolarismo, escritores y escritoras en la escuela, "Eusliderrak" de AEK, HNP (Plan de Normalización Lingüística), cine en euskera... Otras actividades son iniciativas creadas por Egape Ikastola, "Euskal kulturaz gozatu", jóvenes referentes euskaldunes en las aulas, teatro, radio, encuentros de estudiantes de diferentes edades...*

*En los últimos años hemos trabajado mucho en la elaboración de nuestro Proyecto Lingüístico, cuyas decisiones implican a todo el profesorado. Por ello, desarrollamos el tratamiento integral de las lenguas, la competencia lectora y la expresión oral, entre otras.*

*Sin embargo, somos conscientes de que el uso del euskara va descendiendo año tras año y la solución a este problema no depende sólo del centro. La participación y el compromiso de las familias y de los agentes locales son imprescindibles para que el uso de nuestra lengua adquiera una tendencia ascendente.*

*Por ello, uno de los principales retos de Egape en los próximos cursos será ofrecer oportunidades para reflexionar y motivar al alumnado para que su lengua vehicular sea el euskara.*



# LA IKASTOLA EGAPE COMPROMETIDA CON EL PUEBLO

*Egape Ikastola es un centro educativo creado en y para el pueblo. A día de hoy, este objetivo sigue vigente y está recogido en nuestro Proyecto Educativo. Así mismo, educamos a nuestro alumnado para ser ciudadanos y ciudadanas activas.*

*Además, la transmisión de valores está muy presente en nuestra actividad docente, la empatía, la solidaridad, el apoyo… son valores que tenemos muy integrados en el día a día.*

*Siguiendo la metodología de aprendizaje-servicio, a lo largo del curso hemos llevado a cabo una serie de proyectos de servicio a la comunidad. Entre otros, la recogida de juguetes en 4º de Primaria en colaboración con la Fundación Haurralde de Pasaia, el alumnado de 2º de ESO ha trabajado con la Red de Acogida de Donostia organizando una campaña de recogida de ropa para jóvenes migrantes, y en 4º de ESO, han promocionado y potenciado el comercio local en Urnieta difundiendo la campaña de sensibilización en medios y familias y pegando carteles en las tiendas.*

*Egape Ikastola tiene la firme intención de continuar con estos proyectos y actividades y pondrá ilusión y ganas para que nuestros alumnos y alumnas sean buenas personas, activas y solidarias.*

# EGAPE IKASTOLA BETIDANIK HERRIAREKIN KONPROMETITUTA

Egape Ikastola bere sorreratik herrian eta herriarentzako sortutako ikastetxea izan da. Gaur egun ere, helburu horrek indarrean dirau eta argi eta garbi ikusten dugu gure Hezkuntza Proiektuaren helburuetan jasotzen dela. Gure eskola herriari irekita dago eta herriaren alde lan egitea dugu helburu. Era berean, gure ikasleak herritar aktibo bezala hezten ditugu.

Horrez gain, baloreen lanketa oso presente dugu gure irakas-jardunean, enpatia, elkartasuna, laguntza… egunerokotasunean oso txertatuta dauzkagun baloreak ditugu.

Hori horrela izanik, ikasketa zerbitzuaren metodologia jarraituz, ikasturtean zehar zerbitzu bezala hainbat eta hainbat proiektu eskaintzen dizkiogu herriari. Ikasturte honetan jada, batzuk burutu ditugu, hala nola, LHko 4. mailan eguberri inguruan jostailu bilketa egin dugu Pasaiako Haurralde Fundazioarekin elkarlanean; DBH 2. mailakoak, berriz, Donostiako Harrera Sarearekin lanean dihardute migratzaile gazteentzat arropa bilketa eginez; eta gainera, DBH 4. mailakoak, Urnietako merkataritza sustatzeko eta tokiko komertzioa indartzeko txartelak ipini dituzte herrian zehar eta hedabideetan eta familietan sentsibilizazio kanpaina zabaldu dute.

Egape Ikastolak egitasmo eta ekimen horiekin aurrerantzean ere jarraitzeko asmo irmoa du eta ilusio eta gogoa jarriko du gure ikasleak pertsona aktibo, solidario eta onak izan daitezen.






















